

UNAMUNO'ren «Paz en la guerra»



Egunotan, Unamuno berrogei ta hamar urte hil zela betetzen direnean, bere lehen nobela irakurtzeari ekin diot, hots, «Paz en la guerra» (1897) izenekoari. Bere «nivola» abstraktu eta

famatuetatik urrun, Unamuno-k berak esandakoaren arabera, joan den mendeko azken karlistadako Bilbao hiriaren setioa ekarten digu gogora. Eta ekarri ere, Euskal Herriko seme baten ikuspegitik, berak ondotxo dioskunez:

«Esto no es una novela, es un pueblo»

Halare Unamuno-ren lehen obra honetan, oraino, gaztaroko eragina nabaria da. Frankotan egoeraren erromantizismoak eta berbakerak, gure ustez moztu egiten dute nobelaren haria. Dena dela eta kontrapuntu bezalaxe, beste euskaldun batek eta beste giro historiko batetan egindako obrari ere heldu diogu, Unamuno-ren ikuspegia nolabait osatzekotan. Salvatore Mitxelena-ren gerra ondoko obraz ari gara, noski, «Unamuno ta Abendats» (1958) bertan planteatzen baitu autore honek Unamuno-renganako grina, euskararekin batera eta orduko giro latzan sustraituta. Horrela lortzen da, maila batetan bederen, autore bion uztarketa eta erkaketa.

Hasteko zera esan daiteke Unamuno-ren munduari buruz: ez dela batere erreza. Nobela honetan orduko Bilboko liberal menderakaitzekin batera (Don Juan Arano) karlista amorratuak datozkigu (Pedro Antonio), denak, azken finean, getra sentidubako batetan murgiltzeko (Ignacio-ren heriotza, Pachico Zabalbide-ren eszeptizismoa).

Baina ez da hau soilik. Egun beren burua abertzaleztat dutenak ere agertzen dira, nobelaren atzekaldean, karlisten derrota eta gero, zirriborro, apunte edo esbozo gisa. Ez da ona, halabaina, Don Miguel-en itzia azken hauetaz diharduelarik:

«Del viejo fondo de la comunión carlista, nutrido de mera lealtad-de lealtad por la lealtad misma, de terco apego a una tradición indefinible e indefinida iniciase ya el desprendimiento... el regionalismo exclusivis-

ta y ciego a toda visión amplia... ha dado en desear saber vas-
cuence, si lo pudiese recibir de ciencia infusa, como don al en-
tusiasmo, sin labor lenta».

Unamuno-k jakin badaki zernolako mundua deskribatzen duen. Idazterakoan orduko Bilbao dakarkigu begien aurrera. Planteamendu egokiz, gainera. Batetik zazpi kaleetako dendari karlista baten historiari baliaturik (sortzez baserritarra eta euskal-
duna), nahasten du geroxeago bere semearena, azken hau biga-
rren karlistadaren partaide delarik, horrela irakurlearengan kar-
listar gerrate, bien komunztadura berbiztuz. Bestetik ere bilbotar
liberalen fuerismoa gurera dator bere osotasunean, giro foralista
baten barne kokaturik, askotan adierazi denaren kontrakoa hain
zuzen ere. Eta erdian lehen esandako eszeptizismoa. Nobelaren
azkenekoetan Pachico Zabalbide-ren galderak eta gogoetak eta
batez ere konklusioak:

«No fuera de esta (la guerra), sino dentro de ella, en su
seno mismo, hay que buscar la paz; paz en la guerra misma».

Baita ere Pedro Antonio karlistaren etsipena:

«Allí duerme para siempre muerto... ¿por que? ¡Por la causa!
¿Y qué causa?».

Azken batetan gerran ezkonprometituen garaipenak min-
tzen du gure protagonista.

Baina gatoz euskararen harira. Lojikoak denez ingurugiro
hortan ez zuen euskara faltako. Eta ez da gainera Unamuno,
euskara haintzakotzat hartzen ez duen horietakoa. Ignacio-k,
pertsoneiak, jaiotzez bilbotarra izanik, ez du, (beste bilbotar as-
koren moduan) guraso euskaldunak izan arren, euskara osorik
menderatzen. Erderaz ari da solaskideekin. Baina euskararen
kontzientziak kezkatzen du eta ez dauka euskara ahazterik. Eta
baserrira doanetan, euskaraz ihardutea atsegin zaio. Horra hor
Unamuno gaztea. Gero etorriko ziren oposizio famatuak,
1901.urteko berbaldia eta topiko bihurtu diren euskararengana-
ko iritzi kontrakoak (Ikus besterik gabe, Martín de Ugalde-ren
«Unamuno y el vascuence»).

Unamuno-k, nolabait gaurko Euskal Herriko giro nahasia-
ren hasieretan giroturiko elaberria laga digu, liburu honekin.
Eta giro horretan, ezbaierik gabe, euskara dago, onerako ala txar-
rerako abiapuntu eta elementu garrantzitsu bezelaxe. Aurrera
ala atzera jotzeko. Bilbao eta Bizkaiko Jaurreria alkartzeko eta
banatzeko. Euskaldun liberalen tradizio hiritarra eta baserrita-
rren konserbadurismoa, biak topikoak, indartzeko. Eta gauza
guztien gainetik azken karlistada ondoko derrotismoaren lekuko
zuzena. Halare egoera horri aurre egin nahian, Unamuno-k ez
du beste biderik edo etorkizunik ikusten Espainiarena baino.
Euskaldunek beren indarra Espainian zehar hedatu behar dute,
azken honen izaera euskaldundu arte, hizkuntzaz ez bada, izpiri-
tuz eta kulturaz gitxienez.

«Si como se dice en España, los vascos por una u otra ra-
zón, mostramos mayor capacidad, para administración publica
que los demás pueblos de la nación, no debemos de contentar-
nos con el especial régimen administrativo-autónomico sino
que debemos tender a apoderarnos de las riendas administrativas
españolas... Si como yo creo el pueblo vasco es en España el
pueblo más capacitado hoy para la íntima vida de la cultura es-
piritual, no gozará de ésta mientras, no trate de adquirirla, esfor-
zándose por imponérsela a los demás pueblos que con él convi-
ven la vida española»

Hau guztiau, euskara baztertuta, noski:

«El espíritu vasco... sino que a este, el espíritu vasco le viene
estrecho su antiguo ropaje, su vieja lengua milenaria... el vas-
cuence no puede crecer según crece el espíritu vasco, ni aco-
modarse a los ensanchamientos de este».

Oso bestelakoa da, Mitxelena-ren mezua eta proposaturiko
bidea. Bestelako mamia dakarkigu, aldiak aldi, 1936.ko gerla on-
doko giroa gipuzkoar honek. Mitxelena-k frankismoaren urte
latzetan filosofo bilbotarrarengana itzultzen du begirada, euskal
sustrai eta oinarriak bildu nahian:

«Nik ere bai, don Miguel, ene abendari zor diot zure bizi-

tza ta ekintza senti ta barka ta maita al izatea».

Mitxelena-k, bere arima lirikoarekin, Joxe Azurmendik-k ondotxo esan digunez, gauza bakarra du esateko: «Euskal Herriaren kalbarioa, azken gerra galdu eta gerokoa. Eta kalbario horretan Unamuno-ren laguntza du: bere sentipen trajikora jotzen baitu. Babes bila, ideien bila, funtsean euskaldunen indibidualtasunaren bila doakigu frantziskotarra. Eta zeregin horretan San Agustin hirukoitz santua dakarkigu:

In necessariis unitas
in dubiis libertas
in omnibus charitas

Badu halabaina honek euskarazko formularik:

Bearretan batasun
ezpaitan askatasun
zernaitan maitasun

Hirukotasun honek beterik dakarkigu guri ere Abendats-ek, hiru pertsonai historiko hauexen bidez, ondo mamitutako hirukote euskaldunarekin:

«Onatz hiru, bapoak irurak, bakoitza bere sallean:
Unitas: Loyola
Libertas: Unamuno
Charitas: Jabier... ta uztartu ditzagun iruraik ontara:
Unitas: EUSKALTASUNA
Libertas: BAKOIZTASUN
Charitas: KRISTAUTASUN»

Horra hor, implizutuki bada ere, herri euskaldunaren barne tensioa, bere baitan dirauena, indibidualtasunaren eta populua-ren artekoa, hiritar liberal, merkatarien eta nekezale tradizional, baserritarren artekoa. Hona hemen ere, Abendats-ek Unamuno-ri ederki adibidetzen dizkion moduan euskal literaturaren joera desberdintsuak, izaera euskaldunaren oparotasuna eta aniztasuna argiro adierazten dutenak:

«Zaitegi baten jauntasuna, Andima baten edo L. Mitxelena-

ren kirioa, Bordariren gatza...»

Autore biongan, beraz, euskaldunenganako izaeraren kezka, biotan ere biziaren sentipen trajikoa eta bion idatzietan era euskararekiko grina: batek euskara baztertzeko eta kultura unibertsaleko giltzatzat erderara jotzeko eta besteak oster, geure indarraz baliaturik, Euskal Herriaren kalbarioan irtenbide bila saiatzeko.

Agcrican dago biongan daukagula gaur ere planteatzen zaigun dema ederra eta baita arazo horri soluzioa eman nahia: Euskararen auzia pil-pilean beren idatzietan, berebiziko sentipen agonikoaz, hil-burukoaz. Belaunaldiz belaunaldi norbaitzuk sentitutako grina hori guri ere dagokigulakoan gaude eta gurea ere erantzun egokia emateko garaia ere badela.

¿Ihardezpen aproposa bururatzeko unerik ederrena konturatzeko pasatzen ari ote zaigu? Auskalo.

Andres Urrutia